

Irakurri kanpaina Liburutegi Egunean

Herritarrak, nahiz gazte zehin zahar, toki hauetara hurbiltzea garrantzitsua da.

LEIRE LARRAZABAL. BILBAO.

Liburutegien Eguna ospatzen da gaur. Data garrantzitsu hau kontutan izanda, gaur jartzen da martxan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Irakurri Kanpaina, Euskadiko herri liburutegiak adin guztietako herritarrei hurbiltzeko asmoz. Parte hartuko duten liburutegiak 166 izango dira, iaz baino %15 gehiago, eta ekimen berrituekin. Ekintzen egitaraua beste data garrantzitsu batekin emango dio amaiera, Durangoko Liburu Azokarekin, abenduan alegia.

Egitasmoko jarduera nagusienetako batean Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako DBHko ikastetxe publiko eta pribatueta 12 eta 16 urte bitarteko ikasleak izango dira protagonistak, argazki digitalaren lehiaketa batean parte hartuko baitute. Gaia 'Liburua ageri duen erretratua' izango da. Arantza Arzamendi Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen zuzendariak azaldu duenez irudirik onenek "sari bikainak" jasoko dituzte eta erakusketa birtual batean ikusi ahal izango dira, baita argitaratuko den katalogo batean ere.

Horrez gain, Irakurri 2007 kanpainak, parte hartzea erabaki duten liburutegien bitartez, liburuak eta irakurketa 3 eta 5 urte bitarteko haurrengana hurbildu nahi ditu, irakurtzearen zeregina guraso eta hezitzaileekin auzolanean burutuz. Helburu horrekin argitaratu da 'Familiak ere kontatzen du. Etxean irakurtzeko gogoia pizteko 12 urrats' deituriko gida, urriaren 1etik EAEko herri liburutegietan eskuratu ahal dena.

Arzamendik gogoratzen du jarduera hauekin eta "pertsona nagusientzako beste batzuekin ere" abiatuko dela Irakurri 2007 liburutegi zerbitzuak hedatzeko kanpaina, "gure herrietan eta herrietarren neurrira"

Herritar guztientzat

Kanpainen honen alde garrantzitsuenetariko bat integrazioa da; horregatik, hain zuzen, adin guztietako lagunei zuzentzen zaie. Familiek, umeek eta gazteek, eta edadetuek liburutegietara joateko aukera aurkituko dute, euren interesei egokitutako ekintza honetan. Esparru publiko horiek eskaintzen dituzten guneak eta baliabideak ezagutzeko eta gozatzeko aukera izango dute.